

## San Pankrazio 2015. Arrautza jaurtiketa lehiaketa

2015/05/07

Mondragon Unibertsitateak ohiko Arrautza Jaurtiketako Industria Diseinuko Lehiaketa egin du gaur, San Pankrazio Goi Eskola Politeknikoaren zaindariaren egunean. Arrautza jaurtitzean ongien babesten duen tramankulua egiten duten ikasle eta irakasleen lana saritzen da lehiaketan. Horrek helburu bikoitza du: batetik, parte-hartzaileen ahalmen zientifiko-teknikoak ebaluatzea eta, bestetik, lehiaketaren bitartez, ikasleen artean motibazioa sustatzea.

Gainera, aurten, iaz bezala, beste bi lehiaketa egin dira: bideo-jokoen eta roboten diseinua eta garapena, hain zuzen.

### Arrautza-jaurtiketa

Industria Diseinuko Arrautza Jaurtiketari buruzko Lehiaketaren kasuan, arrautza apurtu gabe ahalik eta urrunen jaurti duten parte-hartzaileek irabazten dute. Aukeraturiko lekua Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Liburutegiaren eraikinaren (7. eraikinaren) hirugarren solairua izan da. Handik, 15 metroko altueratik, futbol-zelairantz bota dituzte arrautzak ikasleek beren tramankuluetan. Lehiaketan 90 pertsona inguruk hartu dute parte, lauko edo bosteko taldeetan banatuta.

Agerian egon behar duen tamaina ertaineko oilo-arrautza (egosi gabe eta ozpinetan busti gabe), kartoi mehea, soka edo "hari-fardela" eta ukipen-kola izan dira jaurtiketa-tramankulua diseinatzekeo parte-hartzaileek erabili dituzten material bakarrak. Behin eraikitakoan, hainbat oztopo gaudituz behar izan dituzte: apurtu gabe, arrautza ahalik eta urrunen botatzea; prototipo berritzaile eta estetikoki erakargarria eraikitzea; eta hegada ikusgarria lortzea. Hiru kategoria daude (distantzia, diseinua eta hegada), industria-diseinuko lanik eraginkorrenak eta berritzaileenak saritzeko. Aurten, arrautza garraiatzeko tramankulua pintatu ahal izan dute parte-hartzaileek, errotuladoreak edo bestelako tresnak erabiliz.

Guztira 90 pertsonak osatutako 24 taldek hartu dute parte lehiaketan. Guzti-guztiak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleak eta langileak dira. Lehiaketa egiteko ideia Unibertsitateko Ingeniaritzako irakasleena izan zen. Haien ekimenaren helburua Industria Diseinuko ikasleen artean diseinatzekeo eta berritzekeo gaitasuna sustatzea zen. Poliki-poliki, ekimena ezagun egin zen Unibertsitateko gainerako ikasleen artean, eta horregatik gainerako ikasle eta karrerei zabaltzea erabaki zuten. Arrautza Jaurtitzean oinarritzen den jarduera Goi Eskola Politeknikoak San Pankrazio zaindariaren eguna ospatzeko antolatzen duen jaiaren barruan egiten da. Jai hori ikasturteko jairik garrantzitsuenetakoa izaten da.

### Bideojokoei eta robotei buruzko lehiaketak

Bestalde, Telekomunikazioetako bigarren mailako ikasleei zuzendutako robot-lehiaketa ere egin da gaur. Parte-hartzaileek, taldetan elkarturik, hari gabeko robota eraiki behar zuten. Robotek ibilbide bat egin behar zuten, eta azkarrena izan da irabazlea. Lehiaketa 11:00etan izan da, 3. eraikinaren aurrean. Horrez gain, Telekomunikazio eta Informatikako lehen mailako ikasleek Programazioko eta Fisikako irakasgaietan oinarritutako bideo-jokoak garatu dituzte. Kasu horretan, epaimahaiak eta epaileek alderdi grafikoak, jokatzeko erraztasuna eta abar hartu dituzte aintzat lehiaketako irabazlea hautatzeko. Bideo-jokoak ikusgai egongo dira goizeko 10:00etatik aurrera 3. eta 7. eraikinen artean.

Irabazleak:

### ARRAUTZA JAURTIKETA

**Hegaldirik politena**



- Taldearen izena: Tornado
- Parte-hartzaileak: Jon Odriozola, Jon Ander Salsamendi eta Ander Villareal

### **Hegaldirik luzeena**

- Taldearen izena: Cohetegg
- Parte-hartzaileak: Victor Pérez, Peru Arresti, Jokin Urteaga eta Asier Araniza

### **Diseinurik onena**

- Taldearen izena: Bloritz
- Parte-hartzaileak: Saioa Gartzia, Ioritz Hontecillas eta Ander Larrañaga